



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ADISKIDE ETA SENIDE

GARIZUMA ALDIAN 2021
16-18 URTEKOENTZAT



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

SARRERA

Garizuma aldian gaude, aldi garrantzitsua Jesusen atzetik jarraitu nahi dugunontzat. Ez bakarrik Aste Santuaren atarikoa izatearren, aparteko deia egiten zaigulako zik norberekoikeriarik gabe eta begi, belarri eta eskuak behar gaituztenei irekita bizi gaitezala.

Baraua, otoitza eta limosna dira Garizuma aldiko ohiko hiru zeinu. **Barauak**, neure buruaz, neure gutizia eta gurariez ahaztea, daukadan eta naizen guztia baloratzea eta esker onez bizitzea adierazten du. **Otoitza**, Aitarekin bat zetorren Jesus bizi izan zen bezala bizitzea da, ingurura begiratu eta aberastasun eta pobretasunez jabetzeko. **Limosna**, aztertutako errealitate horretara bihotz zabaltasunez hurbiltzea da, neure denbora, maitasuna, eskaintza eta ezinbesteko laguntza eman sufritzen dagoenari, nik uste baino gertuago dagoen horri.

Garizuma aldian, “hartu” hitzak nabarmendu behar du. Eta, gaur egun, norbaitek harrera ezinbesteko badu, horiek gazte etorkinak dira. Ebanjelioan ikus daitekeenez, Jesus herri eta egoera guztietara irekita dago, beharbada berak ere haurtzaroan bizi izan zuelako migratzearen esperientzia hori, urte batzuez Egipton izan baitzen Jose eta Mariarekin. Aurreiritziak alde batera utzi eta, beste ezer baino lehen, laguntza eske hurbiltzen ari zaidan hori ikusteko eskatzen digu Jesusek.

1

ZEIN IRUDI DUGU GAZTE MIGRATZAILEEZ? (30')

Gure auzoan, herrian, inguruan, bizigiroan, beste hainbaten artean, beren herrialdea, familia, adiskideak,... atzean utzi eta hona etorri diren gazteak ikusiko ditugu. Beren bizilekuan ukatzen zitzaizen aukeraren bila etorritako gazteak dira.



Gazte etorkin horiek kalean ikusten ditugunean, beraiei buruz albistegien, halako gertaeren, norbaitek esandakoaren bidez iritsi zaiguna gogoratzen dugu.

Askotariko irudiak dira buruan bueltaka ditugunak...

- **Zein irudi aukeratzen duzu, gazte hauen inguruan duzun iritzia azaltzeko?**
- **Zein irudi duzu gazte horiez?**

(Lagun bakoitzak irudi bat aukeratuko du eta, ondoren, askatasun osoz, hitz edo esaldi batez baliatuko da, alde batetik, aukeraketa hori azaltzeko eta, bestetik, delako irudi horrek eragin zion sentipena adierazteko). (**Anexo 1-- sakatu hemen deskargatzeko**)

'Auzobizi' egitasmoaren aurkezpeneko
bideoaren zati bat ikusi.

SAKATU
HEMEN

Bideoa ikusi eta gero, talde txikitan banatuta, ondorengo galderen inguruan gogoeta egingo dute:

- ***Zein gauzari ematen diote balioa neska-mutil hauek? Zeri ematen diote garrantzia?***
- ***Geuk ere gauza horiei ematen diogu balioa?***
- ***Bat dator beraiez dugun irudia eta errealitatea?***
- ***Beren egoeran egongo bagina, zer nolako harrera nahiko genuke?***
- ***Geuretzat nahiko genukeen harrera hori eskaintzen diegu beraiei?***

Guztiok nahi dugu gauza bera: leku segurua bizitzeko, ikasketak egiteko aukera, etorkizunean lana izan... Baina kanpotik etorritako gazte horiek zailtasun gehiago izango dute guzti hori lortzeko. Bizitzako lasterketa honetan, guk baino oztopo gehiago aurkitu eta gainditu behar izango dute.

Egoera zailetik datoz, beren herritik ihes egin behar izan dute bizimodu hobearen bila eta muga, hezi eta oztopoak baizik ez dituzte aurkitu. Oztopo fisikoak eta bestelakoak, esate baterako, zailtasunak ikasketei ekiteko, agiriak eskuratu eta lana edo etxebizitza eskuratzeko, osasun-sistemara sartzeko...

Egundoko ahalegina egiten dute, kalean hotzez eta gosez bizi arren, ikasten jarraitzeko, etorkizun hobe izateko itxaropenarekin.

Eta guk, zer egiten dugu horren aurrean?

Zer diosku Jesusek?



MT 25, 31-40

«GIZONAREN SEMEA, AINGERU GUZTIAK LAGUN DITUELA, AINTZAZ BETERIK ETORTZEAN, BERE ERREGE-AULKIAN ESERIKO DA. HERRIAK ORO HAREN AURREAN BILDUKO DITUZTE. HARK BATZUK BESTEENGANDIK BEREIZI EGINGO DITU, ARTZAINAK ARDIAK AKERRETATIK BEREIZTEN DITUEN BEZALA, ETA ARDIAK BERE ESKUINEAN ETA AKERRAK EZKERREAN EZARRIKO DITU. ORDUAN, ERREGEAK ESKUINEKOEI ESANGO DIE: "ZATOZTE, NIRE AITAREN BEDEINKATUOK: HARTZAZUE MUNDUAREN SORTZETIK ZUENTZAT PRESTATUA DAGOEN ERREINUA. GOSE BAININTZEN ETA JATEN EMAN ZENIDATEN: EGARRI, ETA EDATEN EMAN: ARROTZ, ETA ETXEAN HARTU NINDUZUEN: BILUZIK NENGOEN, ETA JANTZI EGIN NINDUZUEN: GAIXO, ETA BISITATU: KARTZELAN, ETA IKUSTERA ETORRI". ORDUAN, ZINTZOEK ESANGO DIOTE: "JAUNA, BAINA NOIZ AURKITU ZINTUGUN GOSEAK ETA JATEN EMAN GENIZUN, EDO EGARRIAK ETA EDATEN EMAN? NOIZ AURKITU ZINTUGUN ARROTZ ETA ETXEAN HARTU, EDO LARRUGORRI AURKITU ETA JANTZI? NOIZ AURKITU ZINTUGUN GAIXO EDO KARTZELAN ETA IKUSTERA JOAN?". ETA ERREGEAK ERANTZUNGO DIE: "BENETAN DIOTSUET: NIRE SENIDERIK TXIKIEN HAUETAKO EDOZEINI EGIN ZENIOTENA, NEURI EGIN ZENIDATEN"»

Azalpenak:

Jesusen atzetik jarraitzea ez da ideia hutsa, jarrera eta bizimodu jakin batzuk eskatzen ditu. Idazki honetan, Jesusek dei egiten digu, Bera bezala bizi gaitezen. Pertsonak dute lehentasuna bere jardueran. Pertsona guztiengana hurbiltzen zen, beraiekin egon, entzun... egiten zituen, baina, beti ere, ahulenengan, azkenengan arreta jarritz.

Izan ere, horiei, anai-arreba esaten zien. Ez ditu ez baztertzen ezta bere bizitzatik aldentzenere; bizi duten egoeran laguntza ezinbesteko duten anai eta arrebatzat hartzen ditu. Hori guztioi gerta dakiguke, hau da, bizitzako uneren batean, ezinbesteko izan dezakegu familiaren, adiskideen, gertukoen laguntasuna.

Hori kontuan hartuta, beste hau ere badiosku Jesusek: eskuak zabalik izan behar ditugula beren herritik, familiatik urrun, gure herri edo auzoan bizi diren pertsona horiek hartzeko, babesteko, sustatzeko, gizarteratzeko... Beste begi batzuez, Jesusen begiez, begiratu behar diegu eta anai-arreba eta adiskide bezala hartu, beraiengan Jesus bera ikusteko.

Mundu globalizatu honetan, hemen egin ditzagun gauzek ere balioa dute. Hemen eta orain egin ditzagun gauza guztiek –txiki nahiz handiek- ondorioak eta eragina dituzte munduko edozein lekutan dauden pertsonengan.



Guzti horregatik:

Munduaren alde honetan bizi garenok adina aukera ez duten pertsona horien egoeraz jabetu eta zuzentasunez jokatzeko asmoa erakutsiz:

- *Zer egin dezaket, txiki eta gertukotik, errealitate hori aldatzeko?*
- *Zer egingo dut?*



4

AMAIERA

- *Zer sentitzen dut tarte honetan ikusitakoaren ostean?*
- *Hitz bat aukeratu eta, askatasunez, sentipen horiek batera jarri.*

